

**1525/2024 EBAZPENA, AZAROAREN 11KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ BAIESTEN BAITA OSPITALEKO PROGRAMEN UNITATEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN-BIHENEKO ZERRENDA, VITORIA-GASTEIZKO OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO OSPITALEKO ARRETA KOORDINATZEKO ZUZENDARIORDETZAN.**

### **AURREKARIAK**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 1066/2024 Ebazpenaren bidez, argitaratu zen Ospitaleko Programen Unitateko Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko lehiaketarako deialdia, Vitoria-Gasteizko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan. 2024 ekainaren 21eko EHAA(n (121. zk.) eta 2024ko uztailaren 3ko BOEn (160. zk.) argitaratu zen.

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, 15 egun balioduneko epea ezartzen da eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena dagokion aldizkari ofizialean azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2024ko uztailaren 24an amaitu zen.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea egongo da, argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan eskumenak baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikulua arabera (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

### **EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.**– Ospitaleko Programen Unitateko Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)


**BIGARRENA.**– Ebazpen hau Osakidetzaren web-orrian argitaratzea.

**HIRUGARRENA.**– Ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiarri, 10 egun balioduneko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 11



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.



## I. ERANSKINA

### OSPITALEKO PROGRAMEN UNITATEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- ADELINA PÉREZ ALONSO

BAZTERTUAK:

- BAT ERE EZ

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 11

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 5- Beste batzuk.